

LEIOAko HAPOren BERRIKUSPENA REVISIÓN DEL PGOU DE LEIOA

### HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

### PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

2021ko IRAILA SEPTIEMBRE de 2021









Dokumentu hau Leioako HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO beharrezko lanen barruan dago.

Dokumentu hau idazteko, honako hauen Para la redacción de este documento se ha laguntza teknikoa izan da:

- Jone Belausteguigoitia Garaizar, Lur Studio
- Irati Alonso Erkoreka, Createlli
- Lucía Olavarri Casado, Lur Studio

Este documento forma parte de los trabajos necesarios para la REVISIÓN del PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA de Leioa.

contado con la asistencia técnica de:

- Jone Belausteguigoitia Garaizar, Lur Studio
- Irati Alonso Erkoreka, Createlli
- Lucía Olavarri Casado, Lur Studio









#### **EDUKIAK**

1.	HA	APOren BERRIKUSPEN-PROZESURAKO PARTAIDETZA4
	1.1	Hitzaurrea eta ikuspegi orokorra4
	1.2	Lege-esparrua5
	1.3	Parte-hartzearen mugak
	1.4	Parte-hartzea egokitzea salbuespenezko egoeren aurrean9
2.	HI	ELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK10
	2.1	Helburuak10
	2.2	Parte hartzeko metodologia eta estrategia
	2.3	Parte hartzeko mekanismoak
3.	PA	RTE HARTZEKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK19
3.	PA 3.1	RTE HARTZEKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK
3.		
3.	3.1	Planteamendu orokorra, ekintzen tipologia eta plangintza HAPOren faseen arabera .19
3.	3.1 3.2	Planteamendu orokorra, ekintzen tipologia eta plangintza HAPOren faseen arabera .19 Informazio- eta prestakuntza- ekintzak
3.	3.1 3.2 3.3	Planteamendu orokorra, ekintzen tipologia eta plangintza HAPOren faseen arabera .19 Informazio- eta prestakuntza- ekintzak
3.	3.1 3.2 3.3 3.4	Planteamendu orokorra, ekintzen tipologia eta plangintza HAPOren faseen arabera .19 Informazio- eta prestakuntza- ekintzak
<ul><li>3.</li><li>4.</li></ul>	3.1 3.2 3.3 3.4 3.5 3.6	Planteamendu orokorra, ekintzen tipologia eta plangintza HAPOren faseen arabera .19 Informazio- eta prestakuntza- ekintzak





#### **CONTENIDOS**

1.	LA	PARTICIPACIÓN EN EL PROCESO DE REVISIÓN DEL PGOU4
	1.1	Introducción y enfoque general
	1.2	Marco legal5
	1.3	Límites de la participación8
	1.4	Adaptación de la participación ante situaciones excepcionales9
2.	OB	JETIVOS, ESTRATEGIAS Y MECANISMOS10
	2.1	Objetivos10
	2.2	Metodología y estrategia de participación
	2.3	Mecanismos de participación
3.	AC	CIONES DE PARTICIPACIÓN. PREVISTAS19
	3.1	Planteamiento general, tipología de acciones y planificación de acciones por fases19
	3.2	Acciones de información - formación
	3.3	Acciones de participación ciudadana básica
	3.4	Acciones de participación institucional ciudadana23
		Fundamental and Fundamental Andread and Fundamental Andread and Fundamental Andread Andread Andread Andread An
	3.5	Difusión, información y atención al público
	3.5 3.6	
4. PA	3.6 IN	Difusión, información y atención al público





### 1. HAPOren BERRIKUSPEN-PROZESURAKO PARTAIDETZA

### 1. LA PARTICIPACIÓN EN EL PROCESO DE REVISIÓN DEL PGOU

#### 1.1 Hitzaurrea eta ikuspegi orokorra

Herritarren parte-hartzea herritarrak Administrazioaren erabakiak hartzeko prozesuetan integratzean datza.

Hiri-antolamendua eta/edo lurraldea udalkudeaketaren gai nagusietako bat izanik, tokiadministrazioek bultzada handia eman diete herritarrek parte hartzeko prozesuei, gure herri eta hirietako hainbat arazori dagokienez.

Izan ere, prozesu horiek gure udalerrien etorkizuna eztabaida publikora zabaltzeko funtsezko estrategiatzat hartu dira, eta kontuan hartu da gero eta inklusiboagoak izateko helburu ukaezina (ONU-Habitat, Hiri-gobernagarritasun Onaren Munduko Kanpaina).

Hala, Leioako HAPOren berrikuspen-prozesuan parte hartzeko, estrategia eta mekanismo multzo bat jarri behar da abian, Leioako etorkizuneko plangintzari buruzko hausnarketa komunitariorako guneak sortzeko. Planaren eduki teknikoak herritarren ikuspegiarekin aberastuko dituzten hausnarketak eta ekarpenak.

da iritziak Horregatik, kontua edo ez iradokizunak biltzea dokumentu teknikoetatik bereizitako dokumentuetan, baizik prozesuaren ikuspegi orokorra parte-hartzea **HAPOren** berrikuspen-prozesuan Leioako integratzera bideratuta dago, ekarpenak egiteko etengabeko iturri eta eztabaida-gune gisa, lantalde teknikoaren hausnarketak eta formulazioak orientatzeko. Hau da, lan teknikoak eta

#### 1.1 Introducción y enfoque general

La participación ciudadana consiste en la integración de la ciudadanía en los procesos de toma de decisión de la Administración.

Siendo la ordenación urbana y/o del territorio uno de los grandes temas de la gestión municipal, las administraciones locales han dado un gran impulso a los procesos de participación ciudadana en relación con problemáticas diversas de nuestros pueblos y ciudades.

Y es que estos procesos han pasado a considerarse como una estrategia clave para abrir al debate público el futuro de nuestros municipios, teniendo presente el objetivo irrenunciable de que sean cada vez más inclusivos (ONU-Hábitat, Campaña Mundial de Buena Gobernabilidad Urbana).

Así, la participación en el proceso de revisión del PGOU de Leioa consiste en la puesta en marcha de un conjunto de estrategias y mecanismos con el fin de generar espacios para la reflexión comunitaria sobre la futura planificación de Leioa. Reflexiones y aportaciones que enriquecerán los contenidos técnicos del Plan con la visión ciudadana.

Es por ello que no se trata de recoger opiniones o sugerencias en documentos separados a los propiamente técnicos, sino que el enfoque general del proceso va dirigido a integrar la participación en el proceso de revisión del PGOU de Leioa, como una fuente constante de aportaciones y un espacio de debate que permita orientar las propias reflexiones y formulaciones del equipo técnico. Es decir, se pretende





partaidetza-prozesuak elkarri eragitea eta etengabe atzeraelikatzea lortu nahi da.

conseguir que el trabajo técnico y el proceso participativo interactúen y se retroalimenten de manera constante.

#### 1.2 Lege-esparrua

Euskadin, lege-esparrua Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen du, honako bi artikuluotan: 8. Artikulua.— Herritarren parte-hartzearen printzipioa; eta 108. artikulua.— Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.

### 8. artikulua.– Herritarren parte-hartzearen printzipioa.

- 1. Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzerakoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.
- 2. Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:
  - a. Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.
  - b. Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herriadministrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.
  - c. Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herriadministrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

#### 1.2 Marco legal

En Euskadi, el marco legal lo establece la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo del País Vasco en sus artículos: 8. Principio de participación ciudadana y 108. Programa de participación ciudadana en el plan general.

#### Artículo 8. Principio de participación ciudadana.

- 1. La ordenación urbanística se formulará, tramitará, aprobará y ejecutará favoreciendo y facilitando la participación, en todas sus formas, de las personas físicas o jurídicas, con garantía de las expresamente previstas en esta ley.
- 2. El principio de participación comportará el derecho a:
  - a. Comparecer como interesado, sin necesidad de acreditar legitimación especial, en los procedimientos de tramitación del planeamiento, de ejecución y de disciplina urbanística.
  - b. Acceder y obtener copia, en la forma que se determine por cada administración pública de la documentación que obre en los archivos de las administraciones públicas competentes, sin otras limitaciones que las generales establecidas en las leyes.
  - c. Ejercer en vía administrativa y judicial, sin necesidad de legitimación especial, las acciones pertinentes para exigir de las administraciones públicas y de los sujetos privados el cumplimiento de la legislación y la ordenación urbanística.





### 108. artikulua. – Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udalerabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a. Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.
- Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.
- c. Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

Artículo 108. Programa de participación ciudadana en el plan general.

El acuerdo municipal de inicio de la formulación, modificación o revisión de cualquier figura de planeamiento de ordenación estructural deberá estar acompañado de un programa de participación ciudadana en el que, según las características del municipio, se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar a los ciudadanos y ciudadanas y entidades asociativas el derecho a participar en el proceso de su elaboración. Entre estos mecanismos figurarán:

- a. Sesiones abiertas al público explicativas del contenido del avance, en especial de las decisiones estratégicas de construcción de la ciudad y las posibles alternativas presentadas en la tramitación del expediente.
- b. Posibilidad de celebrar consulta popular municipal, según la regulación establecida en la legislación básica de régimen local, en caso de graves controversias ciudadanas sobre alguno de los aspectos incluidos en el plan.
- c. Material divulgativo, que deberá prepararse junto con los documentos legalmente exigidos para los instrumentos urbanísticos, al objeto de facilitar su difusión y comprensión.

Horrez gain, 46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, hurrengoa ezartzen du, 3.artikuluan:

#### 3. artikulua.– Herritarren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean.

1. Lurralde- edo hirigintza-antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta

Complementariamente, el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, establece lo siguiente, en su artículo 3:

### Artículo 3. – Participación ciudadana en la tramitación del planeamiento territorial y urbanístico.

 El acuerdo o resolución de inicio de la formulación, revisión o modificación de cualquier figura de ordenación territorial o de ordenación urbanística estructural deberá estar acompañado de un programa de participación en el que se establecerán





- mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten.
- 2. Herritarrek parte hartzeko delako programa osoosorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:
  - a. Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.
  - b. Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.
  - c. Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.
- 3. Halaber, zazpi mila biztanletik gorako udalerriek, udal-plangintzaren aholku-batzordearen erregelamendurik ez badute, erregelamendu hori prestatu eta onartuko dute, plan orokorra formulatzen hasteko udal-erabakia hartu aurretik edo harekin batera. Batzorde horrek plangintza orokorrari buruzko txostena egin beharko du gutxienez.

- los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar el derecho a participar de la ciudadanía y entidades asociativas.
- 2. El mencionado programa de participación ciudadana se publicará resumidamente en el Boletín Oficial del País Vasco o en el del territorio histórico correspondiente, según la administración pública promotora; se divulgará a través de las nuevas tecnologías de la información, y contendrá como mínimo los siguientes mecanismos participativos:
  - A. Una guía de participación, en la que se describirán las pautas y contenidos del proceso de participación ciudadana, y sus pormenores, recogiéndose además en la misma el resumen de los contenidos que servirán como punto de partida del proceso participativo.
  - B. Sesiones abiertas al público explicativas del contenido de la iniciativa y las posibles alternativas presentadas en la tramitación del expediente.
  - C. Material divulgativo que deberá prepararse junto con los documentos legalmente exigidos al objeto de facilitar su difusión y comprensión.
- 3. Asimismo, en el caso de municipios con población superior a siete mil habitantes que no dispusieran ya de reglamento de consejo asesor del planeamiento municipal, procederán a su elaboración y aprobación previa o simultáneamente al acuerdo municipal de inicio de la formulación del plan general. El citado consejo informará preceptivamente y como mínimo, el planeamiento general.

Leioako HAPOren Herritarren Parte hartzeko Programak EAEko 2/2006 lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeak eta 46/2020 Dekretuak aurreikusten dituena baino haratago joateko eta oreka onargarria lortzeko aukera ematen du, legezko berme guztiekin eta herritarrek ahalik eta ekarpen handiena bilduz.

Tal y como a continuación se desarrolla, el presente Programa de Participación Ciudadana para el PGOU de Leioa propone y posibilita una participación que va más allá del requerimiento legal previsto en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de la CAPV y en el Decreto 46/2020, buscando un equilibrio aceptable, con





todas las garantías legales y la mayor aportación ciudadana posible.

#### 1.3 Parte-hartzearen mugak

Herritarrek parte hartzeko prozesuan egiten dituzten ekarpenak ez dira lotesleak, eta ezin dira lotesleak izan; izan ere, batetik, HAPOa berrikusteko dokumentua onartzeko azken eskumena Udalaren Osoko Bilkurari dagokio, eta, bestetik, HAPOren beraren mugak, hirigintza- eta lurralde-legeriaren arabera.

Izan ere, nahiz eta Plan Orokorra udaleskumeneko tresna bat izan, HAPOaren etorkizuneko dokumentua idazterakoan kontuan hartu behar dira udalaz gaindiko beste administrazio batzuek onartutako araudiaren baldintzatzaile ugariak, haien zehaztapenak ezin baitira alde batera utzi eta integratu egin behar baitira.

Horrela, HAPOk Estatutik, Eusko Jaurlaritzatik edo Bizkaiko Foru Aldunditik datorren legeria eta araudia jaso behar du, honako hauei buruzkoa: ingurumena (kostaldeak, ibaiak, basoak, parke naturalak, nekazaritza), azpiegiturak (aireportua, errepideak, trenbidea), kultura-ondarea, etxebizitza, etab. Adibidez, etxebizitza-arloan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Eusko Jaurlaritzak onartuak, eta Bizkaiko Foru Aldundiak idatzitako Bilbo Metropolitako Lurralde Plan Partzialak (LPP), zehazten dute HAPO berriak, gehienez, zenbat etxebizitza berri aurreikusi dezakeen.

#### 1.3 Límites de la participación

Las aportaciones de la ciudadanía que se den durante el proceso de participación ciudadana no son y no pueden ser vinculantes, debido a que: por un lado, la competencia final de aprobación del documento de revisión del PGOU corresponde al Pleno del Ayuntamiento; y, por otro, los diferentes límites del propio PGOU, de acuerdo con la legislación urbanística y territorial.

Y es que, a pesar de que el Plan General es una herramienta de competencia municipal, durante la redacción del futuro documento del PGOU se deben tener en cuenta los numerosos condicionantes que provienen de la normativa aprobado por otras administraciones supramunicipales, cuyas determinaciones no puede obviar y debe integrar.

Así, el PGOU debe incorporar legislación y normativa proveniente del Estado, del Gobierno Vasco o la Diputación Foral de Bizkaia, relativa a: medio ambiente (costas, ríos, bosques, parques naturales, agricultura), infraestructuras (aeropuerto, carreteras, ferrocarril), patrimonio cultural, vivienda, etc. Por ejemplo, en materia de vivienda, las Directrices de Ordenación Territorial (DOT), aprobadas por el Gobierno Vasco, y el Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano (PTP), redactado por la Diputación Foral de Bizkaia, determinan el número de nuevas viviendas que como máximo se pueden planificar en el nuevo PGOU.





### 1.4 Parte-hartzea egokitzea salbuespenezko egoeren aurrean

Parte hartzeko metodologiak, estrategiek eta mekanismoek kontuan hartu beharko dute, diseinatzerakoan, salbuespenezko egoera posibleetara egokitzea, hala nola alarma-egoeretara, osasun-larrialdietara, etab. Zehazki, pertsonen arteko urruntzea eskatzen dutenak.

Adibidez, aurrez aurreko saio publikoak saio publiko telematikoekin ordeztea, logistika informatikoari, dinamikoari, herritarrentzako komunikazioari eta abarri dagokienez egin beharreko aldaketekin.

### 1.4 Adaptación de la participación ante situaciones excepcionales

La metodología, estrategias y mecanismos de participación deberán tener en cuenta en su diseño la adaptación a potenciales situaciones excepcionales como estados de alarma, emergencia sanitaria, etc. que se pudieran producir, especialmente aquellas que requieran de distanciamiento entre personas.

Por ejemplo, la sustitución de sesiones públicas presenciales por sesiones públicas telemáticas, con las correspondientes modificaciones en cuanto a logística informática, dinámica, comunicación a la ciudadanía, etc.





### 2. HELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

#### 2. OBJETIVOS, ESTRATEGIAS Y MECANISMOS

#### 2.1 Helburuak

Leioako HAPO idazteko prozesuan zehar planteatutako herritarren parte-hartzea herritarrentzako Leioa bat planifikatzetik harago doa, herritarrekin Leioa bat planifikatzea bilatuz.

Hala, programa honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Leioaztarrak informatu eta trebatzea HAPOren fase ezberdinetan zehar. Helburu hau soilik informazioa jaso nahi duten herritarrentzat zein parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenentzat dago zuzenduta.
- Benetako parte-hartze bat aurrera eramatea, eraginkorra dena eta ahal bezain pertsona-kopuru handi eta anitzena kontuan hartuko dituena. Parte-hartzaileen artean besteak beste gizarte-, kulturaekonomia-eragileak, elkartekideak elkarteetakoak ez diren herritarrak, adin guztietakoak (gazte eta haurrak barne) hartuko dira kontuan, kanal anitzen bitartez (aurrez aurrekoak eta digitalak). HAPOren edukia fase ezberdinetan hausnartzea, eztabaidatzea, egiaztatzea eta argitzea ahalbidetuko duten kanalak erabiliko dira, eztabaida publiko eta sozial bat sortuko dutenak tokiko kudeaketari buruzko gai zehatz baten inguruan, hala nola, hiriantolamenduaren inguruan.
- Planaren proposamenei laguntzea, adostasun kolektiboa areagotuz, herritarren

#### 2.1 Objetivos

La participación ciudadana planteada a lo largo del proceso de redacción del PGOU de Leioa va más allá de planificar un Leioa PARA la ciudadanía, buscando planificar un Leioa CON la ciudadanía.

Así, los objetivos principales de este Programa son:

- Informar y capacitar a la ciudadanía Leioaztar a lo largo de las diferentes fases de redacción del PGOU, tanto a aquellas personas que tan solo deseen estar informadas como a quienes deseen participar y realizar aportaciones en los diferentes momentos de participación.
- de la mayor cantidad y diversidad de personas, agentes sociales, culturales y económicos, profesionales, ciudadanía asociada y no asociada, de todas las edades (incluido el público infantil y juvenil), a través de diversidad de canales (presenciales y digitales) que permita reflexionar, debatir, contrastar y aclarar los contenidos del PGOU en sus diferentes fases, abriendo a debate público y social una temática concreta de gestión local, como es la ordenación urbana.
- Contribuir a las propuestas del Plan mediante un mayor grado de consenso





ikuspuntua ikuspuntu tekniko-politikoan txertatuz eta, horrela, etorkizuneko Plan Orokorraren edukia aberastuz.

 Etorkizuneko Plan Orokorrak zuzeneko hartzaileen onarpen- eta gogobetetze-maila handia lor dezan lortzea: auzokideak, erakundeak, elkarteak, enpresak eta udalerriko gainerako erakunde antolatuak.

#### Horretarako hau bete beharko da:

- Plan Orokorraren erredakzio-prozesua ezagutaraztea eta komunikatzea, dagozkion faseetan.
- Herritarrei planari eta bere berrikusteko prozesuari buruzko informazioa azaltzea eta hori aztertzeko eskubidea dutela helaraztea; horretarako, lengoaia teknikoa herritarrentzat eskuragarria eta ulerterraza den lengoaia batera itzuliko da.
- Eztabaida sozial eta publiko bat sortzea tokiko kudeaketako gai zehatz bati buruz hiri antolamendua-.
- Herritarren arteko eremu digitalak zein aurrez aurrekoak sortzea Leioaren etorkizuneko plangintzari buruzko komunitate-hausnarketak egiteko.
- Planaren eduki teknikoak herritarren ikuspegiarekin aberastea, ikuspegi inklusiboa erantsiz.
- Herritarren hausnarketa, iritzi eta ñabardurak herrian egindako lan teknikoari eranstea.

- colectivo, incorporando el punto de vista de la ciudadanía al punto de vista técnico-político, enriqueciendo así el contenido del futuro Plan General.
- Conseguir que el futuro Plan General logre un grado elevado de aceptación y satisfacción por parte de sus destinatarios directos: las vecinas y los vecinos, las instituciones, las asociaciones, las empresas y demás entidades organizadas del municipio.

#### Para ello se deberá:

- Comunicar y dar a conocer el proceso de redacción del Plan General, en sus respectivas fases.
- Facilitar el derecho de la ciudadanía para recabar información sobre el plan y su proceso de revisión, traduciendo el lenguaje técnico a un lenguaje accesible y de fácil comprensión para el ciudadano y ciudadana de a pie.
- Abrir a debate público y social una temática concreta de la gestión local – la ordenación urbana-.
- Generar espacios tanto presenciales como digitales entre la ciudadanía y para la reflexión comunitaria sobre la futura planificación de Leioa.
- Enriquecer los contenidos técnicos del Plan con la visión ciudadana, incorporando una perspectiva inclusiva.
- Incorporar las reflexiones, opiniones y matices de la ciudadanía al trabajo técnico y realizado a nivel local.





### 2.2 Parte hartzeko metodologia eta estrategia

#### 2.2.1 Elkarlaneko diseinua

Leioako HAPOren berrikusteko prozesuan zehar erabiliko den metodologia orokorrak, fase bakoitzean ekintza desberdinak izango ditu eta elkarlanean garaturiko diseinuan oinarrituko da

Elkarlaneko diseinuak bi ideia nagusi hartzen ditu kontuan:

#### a) proiektura profil berriak gehitzea

Profil berri horiek herrian era batera edo bestera parte hartzen duten pertsonak dira (Leioako herritarrak, banaka edo elkarteka, eragile sozialak, kulturalak edo ekonomikoak, era askotariko kolektiboak, etab.). Ondorioztatuko den HAPOren onuradun izango dira pertsona horiek eta lanketa-prozesuan zehar "esperientzian adituak diren pertsonen" papera hartuko dute.

Langile teknikoek pertsona horien esperientzietatik abiatuz, ezagutza eta tresna egokiak eskainiko dituzte, parte-hartzaileen elkarlaneko ekarpenak jaso, bideratu eta forma emateko.

#### b) helburu partekatuak lortzea.

Guztion artean guztiontzako Leioa hobea lortzeko ideia.

### 2.2 Metodología y estrategia de participación

#### 2.2.1 Diseño colaborativo

La metodología global a utilizar en la participación a lo largo de la revisión del PGOU de Leioa, con diferentes acciones en cada una de sus fases, es la del diseño colaborativo.

El diseño colaborativo se centra en dos ideas principales:

a) la incorporación de **nuevos perfiles** al proyecto.

Los nuevos perfiles son las personas usuarias (ciudadanía Leioaztar individual o asociada, agentes sociales, culturales, económicos, colectivos específicos, etc.). Es decir, son quienes se beneficiarán del PGOU resultante y cuyo papel en el proceso de elaboración del mismo es el de "personas expertas en experiencia".

El personal técnico, a partir de la experiencia de estas personas, proporciona los conocimientos y las herramientas adecuadas para recoger, canalizar y dar forma a las aportaciones generadas conjuntamente por quienes participan.

b) la idea de un **objetivo compartido**.

La idea de conseguir, entre todas y todos, un Leioa mejor para todas las personas.





### 2.2.2 Estrategia orokorra: prestakuntza + informazioa + partaidetza + ebaluazioa

Planteatutako helburuak lortzeko asmoz, eta elkarlaneko diseinuaren metodologian partaidetza-estrategia 0. fasean oinarrituta, definituko Herritarren Parte-hartze Programa honen bidez, eta ondoren Leioako Udalak egiaztatu eta baliozkotzat emango du. Estrategia Planaren fase desberdinetan egiten den iterazio-metodologia batean datza. Metodologia horrek teknikari eta herritarren arteko ikuspuntuen artikulazio on bat ahalbidetzen du. Horretarako, eduki eta materialak prestatu ondoren, herritarrei eta parte hartuko duten eragileei informazioa eskainiko zaie. Jarraian, partaidetza-prozesuaren berezko ekintzak abian jarriko dira (bai aurrez aurre zein digitalki ere). Eta azkenik, ekarpenen laburpena eta ebaluazio bat egingo da.

Horrela, Planaren fase bakoitzari dagokion lan teknikoa gauzatu ondoren, parte hartzeko eta komunikatzeko edukiak eta materialak prestatuko dira eduki teknikoak "birmoldatuz", herritarrek ulertu ahal izan ditzaten; hurbila, erosoa, bisuala eta edozein biztanlerako ulergarria den formatu bat erabiliz. Herritar guztiengana iritsiko diren komunikazio- eta partaidetzabideak ezarri ahal izateko, funtsezko alderdiak edo gakoak honako hauek dira: edukiak egokitzea, datuak bistaratzea eta eragileen mapa.

Hori guztia prestatu ondoren, hurrengo pausua informatzea eta komunikatzea da. Alde batetik, parte-hartze prozesua (eta fase horretan garatuko diren ekintzak) azaltzeko, eta, bestetik, HAPOren fase horretako eduki teknikoa ezagutzera emateko; fase honetan, Hasierako Onespenean, Behin Behineko Onespenean eta Behin Betikoan

## 2.2.2 Estrategia global: preparación + información + participación + evaluación

Con el fin de alcanzar los objetivos planteados, e inspirada en la metodología del diseño colaborativo, la estrategia de participación planteada en el presente Programa se basa en una metodología iterativa en las diferentes fases del Plan, que permite una buena articulación entre los puntos de vista técnico y ciudadano. Así, se inicia con la preparación de contenidos y materiales, se continúa con la información a la ciudadanía y agentes a participar, se sigue con las acciones propias de la participación (presenciales y digitales) y se finaliza con una evaluación y síntesis de aportaciones al Plan.

De esta forma, tras el trabajo técnico correspondiente a cada fase del Plan, se realizará la preparación de contenidos y materiales de participación y comunicación, que "traduzcan" los contenidos técnicos para que éstos puedan ser asimilables por la ciudadanía en un formato cercano, cómodo, visual, agradable comprensible para los distintos estratos de población. Aspectos o acciones clave para ello son la adaptación de contenidos, la visualización de datos y un mapa de agentes para poder establecer canales de comunicación participación que alcancen a todos los públicos.

Tras la preparación, se pasa a la información y comunicación, con el objetivo de dar a conocer tanto el proceso participativo (con las acciones que se vayan a realizar en esa fase) como de los contenidos técnicos del PGOU en esa fase; las previas a las aprobaciones inicial, provisional y definitiva y también en las de Información





zein Informazio-fasean eta Aurrerakinean. Helburua, beraz, partaidetza informatua lortzea da. Egingo diren ekintzen artean topa daitezke (ez fase guztietan, baina bai HAPOren erredakzio-prozesu osoan): dibulgazio materiala, webgunea, informazio-hitzaldiak, erakusketak, kartelak, prentsa oharrak eta prentsaurrekoak, artikuluak udal aldizkarietan (Leioa) eta beste hainbat.

Informazioa eman eta gero, partaidetza-ekintzak hasiko dira, HAPOren faseen arabera, bide desberdinen bitartez. Ekintza horiek aurrez aurrekoak edota digitalak izango dira, fasearen arabera, pertsona-kopuru eta -aniztasun handiena lortzeko. Horrela, xedea askotariko parte-hartzea, plurala, barneratzailea, bidezkoa eta parekidea lortzea izango da. Deialdian arreta jarriko da eta saio publikoak erraztu eta dinamizatuko dira, eragile-talde desberdinekin: banakako herritar edo elkarteekin, emakumeen elkarteekin, adineko pertsonekin, gazteekin, haurrekin... ekonomia-arloko eragileekin, udal-teknikariekin eta ordezkari politikoekin. Jada erabiltzen diren foroak aprobetxatuko dira eta Udalarekin batera definituko da ea talde interesdun gehiago dagoen ala ez (kirolariak, langabeak, etorkinak, etab.). aurreko saioez gain, **HAPOrako** berariazko webgune bat sortuko da, geoerreferentziadun partaidetza-plataforma digital bat izango duena.

Azkenik, ebaluazio eta ondorioetan, kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenak bildu eta laburtuko dira lengoaia teknikoago batera "birmoldatzeko", eta HAPOn kontuan har daitezen. Burutuko diren berariazko ekintza zehatzak honako hauek dira: partaidetza-adierazleen ebaluazioa, ekarpenen sintesia, memoria kuantitatibo eta kualitatibo bat idaztea, ondorioak ateratzea eta herritarrei ezagutzera ematea.

Urbanística y redacción del Avance. De esta forma se contribuirá a alcanzar una participación informada. Acciones planteadas (no en todas las fases, pero sí en el conjunto del proceso de redacción del PGOU) son material divulgativo, la web, charlas informativas, exposiciones, carteles, notas y ruedas de prensa, revista municipal (Leioa), entre otros.

Realizada la información, comenzarían las acciones de participación como tal, a través de diversidad de canales según las fases del PGOU. Éstos serán presenciales y/o digitales, según la fase, para alcanzar a la mayor cantidad y diversidad de personas y lograr una participación diversa, plural, inclusiva, equitativa y paritaria. Se cuidará de la convocatoria y facilitarán y dinamizarán sesiones públicas con diferentes grupos de agentes: ciudadanía individual y asociada, así como con colectivos específicos de mujeres, personas mayores, jóvenes, público infantil. También contando con el tejido económico, personas técnicas municipales y representantes políticas. Se aprovecharán foros existentes y se definirá con el Ayuntamiento si existen otros colectivos de interés (personas deportistas, desempleadas, inmigrantes, etc.). Además del canal presencial, se elaborará una web específica para el PGOU con una plataforma digital de participación georeferenciada.

Finalmente, en la evaluación y devolución, se recogerá y sintetizará la diversidad de aportaciones recogidas a través de los diferentes canales para "traducirlos" a un lenguaje más técnico, de manera que la participación pueda, efectivamente, enriquecer el PGOU. Acciones específicas son: la evaluación de indicadores de participación, la síntesis de las aportaciones, la redacción de una memoria cuantitativa y





Laburbilduz, dokumentu bereizi batean ekarpenak jasotzeaz gain, parte-hartzea Leioako HAPO idazteko prozesuan integratzen ekarpen-iturri etengabeko gisa eta talde teknikoaren gogoetak eta formulazioak bideratzeko eztabaida-gune gisa. Alegia, hirigintza-azterketako eta -eraketako prozesuek eta parte hartzeko prozesuak etengabe elkar eragingo diote.

#### 2.2.3 Komunikazioa HAPOren partaidetzaprozesuan

